

## Jose Maria Iparragirre

(1820-1882)

Se cuenta de él que escapó de casa cuando tenía quince años para enrolarse en el primer alzamiento carlista (1833-1839) en defensa de los fueros vascos. Tras la derrota se exiló en Francia, donde leyó a Lamartine y Chateaubriand. Su voz y su guitarra le llevaron hasta la famosa soprano Caroline Duprez, de la que fue amante. Participó en la revolución republicana de 1848, y fue expulsado de Francia. Recorrió Italia, Suiza, y Alemania, afincándose por unos años en Londres. Perdonado por el gobierno español, recibe un pasaporte. Aparece en Madrid en 1953, donde canta su *Gernikako Arbola* ante la colonia vasca. La canción se convierte rápidamente en el himno de los vascos. Su autor es apresado y desterrado. Se exilia al País Vasco Norte, donde embarca para América. Mientras, el País Vasco Sur vuelve a alzarse por sus fueros y el himno de Iparragirre se hace inmortal. Con sus melodías de influencia francesa e italiana y sus letras sencillas y directas, Iparragirre fue el poeta civil del siglo XIX.

1.

*Gernikako Arbola  
da bedeinkatua  
euskaldunen artean  
guztiz maitatua.  
Eman ta zabal zazu  
munduan frutua  
adoratzen zaitugu  
Arbola santua*

2

*Mila urte inguru da  
esaten dutela  
Jainkoak jarri zuela  
Gernikako Arbola.  
Zaude bada zutikan  
orain ta denbora  
eroritzen bazera  
arras galdu gera*

3

*Ez zera eroriko  
Arbola maitea  
baldin portatzen bada  
Bizkaiko Juntea.  
Laurok hartuko degu  
zurekin partea  
pakian bizi dedin  
euskaldun jendea.*

4

*Betiko bizi dedin  
Jaunari eskatzeko  
jarri gaitezen danok  
laster belauniko.  
Eta bihotzetikan  
eskatu ezkeru  
Arbola biziko da  
orain eta gero.*

5

*Arbola botatzia  
dutela pentsatu  
Euskal Herri guztian  
danok badakigu.  
Ea bada jendea  
denbora orain degu  
erori gabetanik  
eduki behar degu.*

6

*Beti egongo zera  
udaberrikoa  
lore aintzinetako  
mantxa gabekoa.  
Erruki zaitez bada  
bihotz gurekoa  
denbora galdu gabe  
emanik frutua.*

7

*Arbolak erantzun du  
kontuz bizitzeko  
eta bihotzetikan  
Jaunari eskatzeko.  
Gerrarik nahi ez degu  
pakea betiko  
gure lege zuzenak  
hemen maitatzeko.*

8

*Erregutu diogun  
Jaungoiko Jaunari  
pakea emateko  
orain eta beti.  
Bai eta indarra ere  
zerorren lurrari  
eta bendizioa  
Euskal Herriari.*

## **EL ARBOL DE GERNIKA**

**Jose Maria Iparragirre, 1853**

Bendito es el Arbol de Gernika,  
amado por todos los vascos.  
Da y extiende tu fruto por el mundo,  
te adoramos, Arbol sagrado.

Hace unos mil años que se dice  
que Dios plantó el Arbol de Gernika.  
Manténte en pie ahora y siempre,  
si caes estamos perdidos.

No caerás, Arbol querido,  
si la Junta de Bizkaia se porta.  
Nos uniremos a ti las cuatro provincias  
para que viva en paz la grey vasca.

Arrodillémonos todos para pedir al Señor  
que nuestro Arbol viva para siempre.  
Y si se lo pedimos de corazón,  
el Arbol vivirá ahora y siempre.

En el País Vasco todos sabemos  
que han planeado tumbar el Arbol.  
Ea, paisanos, esta es nuestra hora,  
mantengámoslo en pie sin que se caiga.

Vivirás siempre en primavera,  
antigua flor sin mancha.  
Apiádate de nosotros, querido Arbol,  
danos tu fruto sin perder mas tiempo.

El Arbol nos responde que vivamos alerta  
y que se lo pidamos a Dios con fervor.  
No queremos gerra, sino paz duradera  
para que se respeten nuestras rectas leyes.

Pidamos a Dios nuestro Señor  
que nos conceda paz ahora y siempre,  
y que dé también fuerza a tu tierra  
y su bendición al Pueblo Vasco.

*Versión original: GERNIKAKO ARBOLA*

# Bilintx

## Indalezio Bizkarrondo



### Datu pertsonalak

<b>Izen osoa</b>	Gillermo Joakin Indalezio Bizkarrondo Ureña
<b>Ezizena</b>	<i>Bilintx</i>
<b>Jaiotza data</b>	<a href="#">1831ko apirilaren 30a</a> <a href="#">Donostia (Gipuzkoa)</a>
<b>Heriotza data</b>	<a href="#">1879ko uztailaren 21a</a> <a href="#">Donostia (Gipuzkoa)</a>

**Indalezio Bizkarrondo Ureña**, edo *Bilintx* goitizenez ezaguna, ([Donostia](#), [Gipuzkoa](#), [1831ko apirilaren 30a](#) - Donostia, [1876ko uztailaren 21a](#)) euskal bertsolari eta poeta erromantikoa izan zen, ideia progresista eta [liberalistengatik](#) ezaguna.

## Biografia

Izen osoa Guillermo Joakin Indalezio zuen. Ama Joakina Ureña Alana zuen, eta aita Jose Maria Bizkarrondo Amunarriz. Amaren aldeko aitona andaluza zuen, [Ayamontekoa \(Huelva\)](#).

Gaztetan izandako istripu batek aurpegia desitxuratuta utzi zion. Hortik zetorkion nonbait *Indalezio Moko* beste goitizena.

Zorigaiztoa lagun izan zuen bere bizitza osoan Bilintxek. Soka-muturrean behin zezenak adarkatu eta hanketan zauri larriak eragin zizkion; handik aitzina, errenka ibili zen betirako.

Nikolasa Erkizia Makazaga azkoitiarrarekin ezkondu zen Donostian, [1869ko apirilaren 5ean](#). Hiru seme-alaba izan zituzten: Benito ([1869](#), ezkondu aurretik jaioa), Pio Francisco ([1871](#)) eta Maria Ana ([1874](#)).

Liberala zen Bilintx, eta Donostiako liberalen laugarren batailoian gudukatu zen [Hirugarren Gerra Karlistan](#), karlistek hiria inguratuta zutelarik. 1876ko [San Sebastian egunean](#), karlistek [Arratzain](#) menditik botatako granada bat sartu zitzaion leihotik etxera, Antzoki Zaharrean bizi zelarik, bertako zaindari izan baitzen urtetan. Granada lehertu eta zangoak moztu omen zizkion. Sei hilabete luzetan oinaze izugarriak jasanda hil zen, uztailaren 21ean, [euskal foruak](#) deuseztatu zituzten egun berean.

[Hirugarren Gerra Karlista](#) zela eta, [Madrilgo](#) egunkari nagusi baten berriemaile izan zen Donostian [Manuel Curros Enríquez](#) galiziar idazlea, [Rosalía de Castro](#)rekin batera [Galiziako literaturaren](#) berpiztea ekarriko zuena. Curros Enríquezek [1876ko urtarrilaren 21ean](#) *El Imparcial* egunkarian kronika lazgarri bat argitaratu zuen, Bilintxen heriotzaz. Euskal poetaren gorazarrea egiteaz gain, azaltzen du Bilintxen etxera joan zela ikustera, zangoetan zauri izugarriak eragin zizkion leherketaren berri jakin orduko.

## Idazlea

Baserri munduko idealizaziotik urrunduta, amodiozko poesia landu zuen batez ere Bilintxek. [Koldo Mitxelena](#)ren iritzian, bera da euskal literaturan ahots benetan erromantikoena.

Alabaina, ez da poeta erromantiko klasikoen gisara izakion zorigaiztoa txarrestera emana, baizik umore gazi-gozoko idazlea; umore itxuraz azalekoa edo mamirik gabea, baina munduaren garratetik babesteko gotorlekutzat hartu zuena.

Sentimendu handiko idazlea zen, amodioaren aurrean biluzik agertzeko lotsarik ez zuena, hain zuzen ere literaturan barne-aitorpen oro bazter uztea agintzen zuen joera nagusi zen garaian. Horretan, Bilintx poeta bakartia izan zen bere garaian. Bilintxen begi zorrotza eta luma zorrotzagoa oso agerian gelditzen dira bere poema satirikoetan. Satiraren zertzelada nagusiak ongi marrazten zituen beti, baina gordinkeriarik gabe, mendekurik gabeko irribarre errukibera gordeta beti.

Literatura kritikariek hizkera arruntegi edo pobrea leporatu izan dioten arren, esan daiteke Bilintxen bertsoetan Donostiako euskara urbano zaharra mintzo dela garbi.

*Behin batean Loiolan erromeria zan,  
hantxen ikusi nuen neskatxa bat plazan;  
txoria baino ere arinago dantzan;  
huraxe bai polita, han politik bazan!*

*Esan nion desio  
senti nuen gisan,  
harekin hizketa bat  
nahi nuela izan;  
erantzun zidan ezik  
atsegin har nezan,  
adituko zidala  
zer nahi nion esan.*

*Arkitu ginanian  
inor gabe jiran,  
koloriak gorritu  
arazi zizkidan;  
kontatuko dizuet  
guztia segidan,  
zer esan nion eta  
nola erantzun zidan.*

*"Dama polita zera,  
polita guztiz, ai!  
baina halare zaude  
oraindik ezkongai,  
ezkon gaitezen biok!  
esan zaidazu bai!"  
"Ni zurekin ezkondu?  
ni zurekin? jai jai!"*

Una vez en Loiola  
Había una romería  
Allí vi a una joven en la plaza  
Danzando más ligera que un pajarero  
Ella sí que era bonita,  
Qué bonita era!

Le conté cómo era el deseo  
que sentía en mi interior,  
que con ella quería charlar.  
Ella me contestó  
que no podía tomarme con gusto,  
que entendiera qué quería decirle.

Nos encontramos sin nadie alrededor  
Y me enrojecí.  
Os contaré todo en seguida,  
Qué le dije y cómo me contestó.

- Eres una mujer muy guapa,  
pero todavía eres soltera. ¡Casémonos!  
- ¿Tú quieres casarte conmigo?  
¿yo contigo? ¡Ja ja!

Una vez en Loiola, había una romería.  
Allí vi a una chica en la plaza,  
que bailaba más ligera que un pájaro.  
Ella era bonita, ¡qué bonita era!

**KANTUZ**  
**Jose Mendiague**

*Jaio:*

**1845**

Aldude - Nafarroa Beherea

*Hil:*

**1937**

Montevideo - Uruguai

*Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi,  
kantuz igortzen ditut nik penak ihesi;  
kantuz izan dudana zerbait irabazi,  
kantuz gostura ditut guziak iretsi;  
kantuz ez duta beraz hitzea merezi?*

*Kantuz eman izan dut zonbeiten berriak,  
kantuz atseginekin erranez egiak;  
kantuz egin baititut usu afruntuiak,  
kantuz aitortzen ditut nere bekatuiak,  
kantuz eginen ditut nik penitentziak.*

*Kantuz ehorts nezate, hiltzen naizenian,  
kantuz ene lagunek harturik airian;  
kantuz ariko zaizkit lurrean sartzian;  
kantuz frago utziko diote munduan,  
kantuz har ditzen behi nitaz orhoitzian.*

De canciones nacido, con canciones vivo,  
con canciones ahuyento el dolor,  
con canciones lo que he conseguido.  
¿ Por qué no, pues, morir con canciones ?

Con canciones lo he dicho todo,  
con canciones pausadas verdades,  
y si con canciones he hecho de la afrenda  
norma,  
con canciones os confesaré mis pecados y  
de canciones será mi penitencia.

Cuando muera, sepultadme con canciones,  
asido en el aire por canciones de amigos  
que a la tierra me lleven con algarabía.  
Mil canciones les dejaré en el mundo  
y que ellas sean para todos mi recuerdo.

## Pedro Mari Otaño

(1857-1910)

Nacido en una familia de improvisadores, supo elevarse sobre el verso meramente popular, tanto por la calidad de sus rimas como por la temática que le interesa. Poco dotado para el canto por su mala voz, actuó poco en público y quizá ello contribuyó a que sus versos sean reflexivos, serenos y de un buen gusto indiscutible. En vida fue considerado como el más grande de los improvisadores, y su segunda partida a América, donde murió, constituyó una despedida-homenaje nacional. Pedro Mari Otaño es una de las figuras cumbre del bertsolarismo.

*Zazpi ahizparen gai den oihala  
ebakirikan erditik,  
alde batera hiru soineko,  
utzirikan lau bestetik;  
guraiziak berezi arren  
bakoitza bere aldetik,  
ezagutzen da jantzi dirala  
zazpiak oihal batetik.*

*Oihaltzat hartu zagun Euskadi  
guraizitzat Bidasoa,  
hibai koxkor bat besterik ez da  
hutsa... balitz itsasoa.  
Elkarren hurbil daude zazpiak,  
muga daitzen da Pausoa.  
Zergatik izan ez behar degu  
famili bakar osoa?*

*Arbola baten zainetatikan  
sortzen diran landareak  
bezala gara Bidasoaren  
bi aldetako jendeak;  
berdinak dira gure jatorri,  
ohitura eta legeak,  
ama euskarak magal berean  
hazitako senideak.*



## LAS SIETE UNIDAS<sup>1</sup>

Pedro Mari Otaño, 1900

Si cortamos por la mitad una tela que sirve para siete hermanas,  
y ponemos a un lado tres vestidos, y cuatro a otro,  
aunque las tijeras las hayan dividido una a una,  
bien se echa de ver que las siete se visten de la misma tela.

Tomemos por tela al euskara, por tijeras al río Bidasoa,<sup>2</sup>  
un pequeño río que sería aún más pequeño si fuese un océano:  
las siete están unas al lado de otras, la frontera se llama «Un Paso»,<sup>3</sup>  
¿por qué no hemos de ser una sola y unida familia?

Las gentes de uno y otro lado del Bidasoa  
somos como plantas que surgen de una misma raíz:  
tenemos idénticos orígenes, costumbres y leyes,  
somos hijas e hijos criados en el seno de la Madre Euskara.

¡Madre Euskara! ¡Cuántos de tus hijos vivimos en América!

Y desde lejos te amamos aún más:

aquí no hay ni Bidasoas ni tantos obstáculos como allá,

para que nuestra querida madre rejuvenezca, ¡que vivan siempre las siete unidas!

<sup>1</sup> En euskara, «Zazpiak Bat», eslogan político. Se refiere a la unidad de las siete provincias vascas: las tres del lado francés de los Pirineos (Laburdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa) y las cuatro del lado español (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa).

<sup>2</sup> Río que desemboca en la bahía de Txingudi, entre Hendaia (Laburdi) y Hondarribia (Gipuzkoa), y que constituye la actual frontera franco-española, dividiendo el País Vasco.

<sup>3</sup> Se refiere a Behobia, pequeña localidad que se extiende a ambos lados del Bidasoa, también llamada Pausu. El autor interpreta este nombre como «pauso», que en dialecto guipuzcoano significa «paso».

## Jean Baptiste Elizanburu

(1828-1891)

Natural de provincia de Lapurdi, en el País Vasco Norte, su vida estuvo unida a la armada. Hizo cuatro años de campaña en Africa, y fue ascendiendo grados en el escalafón militar. En 1861 fue designado al Primer Regimiento de la Guardia Imperial de Napoleon III. Al poco tiempo fue distinguido con la «Légion d'Honneur», participando en la campaña contra Alemania en 1870. Crítico con la política belicista del emperador, republicano convencido, se retiró al País Vasco, donde participó activamente en la vida política desde posiciones de izquierda mientras escribía sentidas y bucólicas canciones sobre aires populares, que tuvieron un éxito inmediato. Hoy sus versos siguen siendo cantados en todo el país. Se le considera autor de muchas composiciones anónimas, entre ellas la famosa *Solferinoko Itsua*, sobre el ciego de la batalla de Solferino.

### NERE ETXEA

#### Jean Baptiste Elizanburu, 1862

*Ikusten duzu goizian*

Ves al amanecer

*Argia hasten denian,*

Cuando comienza la luz

*Menditto baten gainian,*

Encima de un monte,

*Etxe ttipitto aintzin xuri bat,*

Una pequeña blanca casa

*Lau haitz ondoren erdian,*

En medio de cuatro nobles

*Xakur xuri bat atean,*

Un perrito blanco en la puberta

*Iturriño bat aldian,*

Una pequeña fuente al lado

*Han bizi naiz ni bakian.*

Es hay donde vivo en paz.

## Xabier Lizardi

(1896-1933)

Aunque muerto prematuramente, este poeta dejó una importante obra como prosista y como impulsor la poesía lírica. En sus versos tiene especial importancia el detalle de la naturaleza, que es el reflejo del ánimo del poeta. Trabajó su poesía como un orfebre de la lengua, buscando siempre la concisión expresiva y el trazo exacto. Si bien a veces su primera lectura resulta difícil, en sus poemas siempre surgen hallazgos deslumbrantes. Imitado por muchos y por nadie igualado, Lizardi abrió la puerta de lo que más tarde sería la renovación de la metáfora.

*Biotz-begietan* (En el corazón y en los ojos), [1932](#)

### BULTZI-LEYOTIK

Xabier Lizardi, 1929

<i>Oi, lur, oi lur!</i>	<i>beyondeizula zuri!...</i>
<i>Oi, ene lur nerea!...</i>	
<i>Oi, goiz eme,</i>	<i>Zure bazter,</i>
<i>parre gozoz ernea!...</i>	<i>gurazko aberria,</i>
	<i>doa zoro</i>
<i>Arto musker,</i>	<i>(ta bertan ni) bultzia...</i>
<i>mendi, baserri zârrak;</i>	<i>Oi, ene lur,</i>
<i>ale gorriz</i>	
<i>abailduta sagarrak:</i>	<i>baninduzu zerea,</i>
<i>oro laño</i>	<i>zu landu, ta</i>
<i>mê batek estalia,</i>	<i>zure sariz asea!...</i>
<i>urrez oro</i>	
<i>eguzkiak yantzia...</i>	<i>Bañan... ezin:</i>
	<i>bêko bear goriak</i>
<i>Nekazari,</i>	<i>narama... Agur</i>
<i>gizandi bat iduri</i>	<i>soro, sagar, mendiak!...</i>
<i>soroan zut:</i>	

## Lauaxeta

(1905-1937)

Seudónimo de Esteban Urkiaga, estudió para jesuita, coincidiendo con otros jóvenes de inquietudes vasquistas y literarias, entre ellos Orixe. Nunca se tuvo a sí mismo por poeta, consideraba sus poemas como humildes aportaciones en favor de la lengua vasca, en la que escribió numerosos artículos de prensa y de crítica literaria. A falta de originalidad, su poesía trae el eco de las corrientes francesas por un lado, con una cierta influencia de Baudelaire, y de la balada folklórica por otro lado, al estilo del *Romancero Gitano* de Federico García Lorca. Como el andaluz, el poeta vasco fue fusilado por los franquistas, tras ser apresado cuando se dirigía a la Gernika recién destruída con varios corresponsales europeos.

### ITXASORA!

Lauaxeta, 1931

Soñutzik ontzi-puntan, sakoneko lemazain,	Bide barriak nai dauz abendaren kezkeak:
itxaso-barne nua zidor ezezaunen gain.	Lar lurrari egon da.
¡Ondartzan oro laga! —arriskubak darraigu—,	¡Zabaldu osertzeak!
Lur-barri billatzale ametsa lagun dogu,	Ekintza gurenentzat landa au dan zabala,
Liorreko lokatzok geure malkoz egiñak.	Izki-mota orontzat burdinori garbala
Arnas artzeko, billau	Geure itxaso gogorra, abendak maite zaitu!
amaibako urdiñak.	Zeure altzora gatorz, lurra ba txiker yaku.
Euren solas utzakaz gixonak lotzen gabez;	¡Indar irakasle oi,
Azkatasun oldiak ilten dira atsekabez.	kendu odei ta laño!
¡Aurrera! Iparraldian edur-mendi ixoztubak,	Balerik eztogu nai gogai barriak baño.
eta ugarte otzetan lamiñen gaztelubak.	Argizkorrija dager, urrezko yantzi barriz.
Eruango zaitubet:	Ementxe gatorkixuz jakintzaren egarriz.
—eunak arro axian—.	Ametsik ezkenduban legorretan egiten,
Itxaropena bai dot begi onein ganian.	uraren barna baña goyak doguz ikusten.
	¡Geure itxaso gogorra!

Gogayen arraunlari

Agur egiten dautzu itxaro argijari.

Soñak esitzen dozuz, goguak ariago:

Geuregan legez, zeugan, beti kezka bat dago.

Sakon ori nok dazau?

¡Oso zara zadorra!

Ekaitz orrein orruba koldarren bildurkorra.

Euzkuak soilik dabiltz altzo zabal orretan;

imin dozu oldia euren begi barnetan.

Gudarijak dagixuz, berunezko bizkarrak,

tente diran erruak, burni diran iztarrak.

—Gixonjale leyentzat jaki ziltzagilliak...—

Itxaso aundi orrek, zabal, zeru-atiak.

Erijotza or dabil, or dabil maitasuna.

Erri gogor onentzat, zeugan etorkixuna.

Odiseu barri gara, lamiñik ezta baña,

Emen sortuba ezta Aprodite liraña.

Geure abenda-antzo pioneer gaste gara.

Altzuan beti dozu irri baten ikara.

Baña leoyen legez darresixu galparra.

¡Euzkoen itxasua!

¡Oldia eta indarra!

¡Aurrera, aurrerantza!

Ontzi-puntan soñutzik.

Axe oron mosubai bijotzak zabaldurik.

Ibillaldi au ezta bixitzan amaituko;

Bein ontziratu danik barriz ezta itzuliko.

Miñak lurrean itxi, begoz itun diranak.

Itxaroz kezkatubak nai dabez geure lanak.

Zerubak argi dagoz, begoz pozez begijak.

Uñen ganian dabiltz geroko abestiak...

Barrero esi daigun ludijaren gerrija,

Ez bitsez, ez indarrez, gogayakaz baño.

Itxaruak berua euzkotarren ontzija,

Goguak nausi diran argitasun goiraño.

## ¡A LA MAR!

Lauaxeta, 1931

Desnudo en la proa del barco, piloto de altura,	insigne bronce para grabar toda clase de letras.
surco los mares por senderos desconocidos.	¡Cómo te ama mi pueblo, bravo mar nuestro!
¡Dejad todo en tierra! —nos persigue el peligro—,	A tu regazo venimos, la tierra se nos queda pequeña.
Nuestro sueño es encontrar nuevas tierras,	¡Maestro de energías,
De nuestras lágrimas están hechos los lodos que dejamos atrás.	despeja nubes y brumas!
Buscad nuevos horizontes	No buscamos ballenas, sino ideas vírgenes.
donde podamos respirar.	La aurora muestra su nuevo manto de oro.
Los hombres nos atan con sus fútiles pretextos,	Aquí venimos sedientos de sabiduría.
y las ansias de libertad mueren cruelmente.	En tierra no éramos capaces de soñar,
¡Adelante! Ved al norte los helados montes de nieve,	sobre la mar se refleja lo más alto.
y los palacios de hadas en frías islas.	¡Bravío mar nuestro!
Os llevaré:	Bogadores de ideas,
—velas henchidas al viento—	saludamos a la luz de los mares.
sobre mis ojos brilla la esperanza.	Domas los cuerpos, y más aún las mentes:
La inquietud de la raza pide nuevos rumbos:	como en nosotros, en tí siempre vive una inquietud.
estuvo demasiado atada a tierra.	¿Quién conoce tu calado?
¡Ampliad los horizontes!	¡Eres misterio impenetrable!
Hermoso es este espacio para las proezas heróicas,	Espanto de los cobardes es el bramido de la tormenta.
	Sólo los vascos se atreven en tu infinito seno,

en el fondo de sus ojos derramaste osadía.

Tú forjas luchadores, dorsos de bronce,

Músculos en tensión, muslos de hierro

—Tentadores manjares para un  
antropófago...—

Abrénos, infinito mar, las puertas del cielo.

En tí va la muerte, en tí va el amor.

Para este recio pueblo, tú eres el futuro.

Aunque no nació aquí la bella Afrodita  
ni tenemos sirenas, somos nuevos Odiseos,  
somos jóvenes pioneros, como nuestra raza.

Tu siempre guardas el temblor de una  
sonrisa.

Pero sacudes tu melena como un león.

¡Mar de los vascos!

¡Impetu y vigor!

¡Adelante, siempre adelante!

Desnudos en la proa del barco.

Abiertos los corazones al beso de todos los  
vientos.

Esta navegación no termina con la vida,  
quien se embarca en ella no vuelve nunca.

Dejad los lamentos en tierra, que se queden  
los pusilánimes.

Nuestras obras precisan de quienes miran  
al futuro.

Los cielos están limpios, los ojos brillan de  
alegría.

Sobre la mar van las canciones del  
mañana...

Recorramos de nuevo la cintura del  
planeta,

no sobre la espuma, no con vanos  
esfuerzos, sino en las ideas.

Que la esperanza guíe la nave de los  
vascos

Hasta la alta claridad donde reinan las  
almas.

# Lauaxeta eta "ALEA"

Jon  
Etchezarraga

Kortazar

Lauaxeta eta García Lorcaren arteko zerikusiak aztertu baditugu ere gure lan honen lehen partean, gerraurreko Bilboko egoera literarioaren barri zenbait eskeini nahi dizuegu bigarreanean. Baina hontan saiatu baino lehen, gure lantxo honen mugak argi jarri nahi genituzke. Lehenengo eta behin, aldi hartako Bilboko literatur giroa esatean, batez ere "ALEA" taldearen inguruan bizi izan zen giroaz ari gara. Baliteke norbaitek hori etxela euskal literatur giro bat esatea, baina gu ez gara hortan sartzen, eta kasu hontan behintzat, eztaigu ardura ere. Eta mugei muga gehiago jarriaz, esan dezagun, oraingo hontan ematen dugun informazioa, aurrerapen bat baino ez dela. Guk, nolabait esateko, dato batzuk aurkitu genituen uste eta bilatu gabe, eta eskeini egiten ditugu besterik gabe, hurrengo baten askozaz zehaztuago eta luzeago egiteko esperantzaz.

Lauaxetaren bizitza eta lanen inguruan datotxoren batzuk kornentatzean Eusebio Erkiagarekin, Lauaxetaren lagun izan den D. Pablo Bilbaoren berri izan genuen. Bera izan bada —D. Pablo Bilbao Aristegi— jarraian datozen datoetarik gehienak eskeini zizkiguna. Gure eskerrak hemendik. Eta hona hemen aurrerapen hori.

1936.ko urtearen hasieran, otsailaren 22.an hain zuzen ere, "ALEA" (Asociación Libre de Ensayos Artísticos) izeneko taldea sortu zen Bilbon. Literatura eta arte munduaz arduraturik, intelektualak gehienok, dozenaren bat pertsona elkartu ziren egun eta urte hartaz Bilboko aspaldi bateko "Café Suizo"-an. Taldekoek diotenez, eta gero taldeko konponenteengan ikus dezakegunez, iritzi politikoak alde batera utzi ziren talde hau eratzean.

Talde honen eragilea eta bultzatzailea Jose Miguel de Azaola izan zen. Urte haietan Filosofia ikasketak egin zituen Friburgon bere Deretxoko estudioetatik aparte. Bera izan ei zen taldearen bizkortzailea eta "arimea". Geroagoan, Donostiaratu zenean ere, beste horrenbeste egin omen zuen hango talde desbardinetan.

Taldearen abiada unean pertsona berezi batzuk elkartu baziren ere, taldea ez zen suertatu itxia eta zerratua. Taldekoek izan ez arren ere beti izan zuten sarrera bestelako bilbotar, kanpoztar zein bidezkoek: 1942 urtean, "ALEA" taldeak "Cuadernos del grupo 'ALEA'" argitaratu zuenean bere lehen alean, eta hasierako aldiak gogoratuaz hauxe zekarren bere azalpenezko hitzaurrean: "Así, en nuestras reuniones han hablado frecuentemente forasteros de relieve, o bilbaínos que en ninguna otra ocasión nos visitaban, en tanto un núcleo reducido de fervientes áleatas imprimía el sello de continuidad y daba cohesión y eficacia a los multifacéticos trabajos del Grupo, que gracias a ellos forman hoy una obra de carácter homogéneo".

Talde hontako partaideen behin behineko zerrenda bat egingo bagenu, gerraurreari dagokionez behintzat pertsona hauexek aipatuko genituzke: Lehen aitaturiko Jose Miguel



Azaola, Elisa Corcova (Juan Ramón Jiménez eta Zertobiaren adixkide izanik taldeko batzuk heuren ezagupidean jarri zituen), Gustavo de Maestu (pintorea), Sabino Ruiz Jalón (musikoa eta "El Liberal" egunkari sozialistan kritikoa), Francisco Azaola (idazlea), Luis María Barandiaran (ijinadorea), Pedro Ibarra Mac-Mahon (gaur egungo Güell-go baroia), Felix Quiroga (ijinadore nabala), Jaime Delclaux (olerkaria), Jose Ramón Amézola (guk ezagutzen ez dugun "Idea y Sentimiento" liburuaren egilea), Artadi, Jose Landecho, Martínez Ortiz, Pablo Bilbao Aristegi ("ALEA" taldeari dagokionez gure barri emailerik onena), Blas de Otero (olerkaria) eta Esteban Urkiaga "Lauaxeta". Esan dugunez, zerrenda hau behin behinekoa da, eta batez ere gerraurreari dagokiona, "ALEA" talde legez zabaldu egin baitzen gerrostean eta erabat aldatu ere.

Taldea hasiera baten tertulia bezela eratu zen, baina laister planteatu zen zelan jarri martxan talde hau, eta nola bideratu behar ote ziren literatura eta arteari buruzko taldearen kezkok. Lauaxeta bera izan zen arazo honi zelanbaiteko irtenbidea eskeini zaiona aldi hartan hain bizikera urrria eta agorra ei zuen Bilboko Ateneoan sartzea proposatuz. Eta hala erabaki egin zen. Garai hartako sasoiari Bilboko Ateneoa edo Ateneo Bilbaínoa Carlton edifizioan zegoen Rodríguez Arias kaletik sarrerarekin eta Corta izena ei zuen enplegatu batekin.

Gerraurrean bada, "ALEA" taldeak, kultura eta arte arloko zenbait ekintza eratu zuen Ateneoan bertan, edo bestela, Gustavo de Maeztu pintoreak Egaña kalean zuen estudioan. Ekintza horietarik bat hitzaldi ziklo bat eratzea izan zen, eta ziklo horren barruan Esteban Urkiaga "Lauaxetak" hitzaldi bat eman zuen 1936.ko udaberrian gai honi buruz: "Sófocles y la tragedia griega". Hitzaldi honi dagokionez ez dugu segurtasunik bat izan zen ala bi izan ziren hitzaldiok. Jesusen Konpainian egindako ikasketen ondorenez badirudi Lauaxetak bazuela formazio humanistiko nahiko oinarritu bat, eta hori da izan ere ALEA taldearen inguruan ezagutu zutenen iritzia.

Lauaxeta eta García Lorca buruz asko esan da, eta noizbait idatzi ere, elkar ezagutu ote zuten, elkarren adixkide ote ziren, Lauaxetak García Lorca eta "Generación del 27" ezagutu bazituen beste olerki egikera bat izango zuela beharbada, eta abar luze bat. Inpresioak batzu, iritziak beste batzuk, susmoak sarri, baina beti ere dato fidagarri urriz. Arrazo hontaz hauxe da guk oraingoz esan dezakeguna, dakigun guztia bestalde:

1936.ko urtarrilla zelarrik, Margarita Xirguren konpainiak García Lorcaren "Bodas de Sangre" eta "Doña Rosita la Soltera o el Lenguaje de las Flores" antzerki lanak eszenifikatu zituen Bilboko Arriaga Teatroan. "Bodas de Sangre" lanaren estredua zela medio Bilbora etorri zen García Lorca estreduan hartan egoteko.

García Lorca Bilbora etortzearen kontestu hontan, Lauaxetak bide batez ezagutzeko aukera izan zuen, nahiz ta pasadizuz izan bazen ere. Gaur egun Bilboko Udaletxearen Liburutegia dagoen toki berean, Bidebarrieta kalean, "El Sitio" izeneko liberalen sozietate batek bere egonlekua zuen. Elkarre hortakoek omenaldi bat egin zioten hartan García Lorca eta omenaldiaren ondoren aldi hartan Bilbon oso ezaguna ei zan "Luciano" jatetxean bere omenezko afari bat ospatu ei zen Sabino Ruiz Jalonek eraturik. Sabino Ruiz Jalón, lehen esan dugunez, "ALEA" taldekoa zen, eta Lauaxeta bera ere taldeko izanez, García Lorcaren omenez ospaturiko afarira joan zen. Hor ezagutu zuten elkar.

Dena dala ere, elkar ezagutze hori oso zirkustantzietakoa izan zen, uste baino lehen García Lorcak Madrilera itzuli beharra izan zuelako, antza denez, familia arazo batzuren beharrianak eraginez. Madrilera itzuli beharrik suertatu ez bazitzaion Bilboko Ateneoan

hitzaldi bat emateko zen "Cante Jondo"-ari buruz "ALEA" taldekoen inizatibaz. Aldi hartan bazen oso ale gutxi kaleratu zituen aldizkari bat, "Norte", Ruiz Jalonen familiakoa zen "Graficas Nore"-k argitaratzen zuena. Aldizkari hortan publikatu zen, norbaitek hortan interesik balu, omenaldiaren argazki bat.

"ALEA" taldekoen bitartez beste zerbaite gehiago ere jakin ahal izan dugu talde honek, eta bere inguruan mogitzen zen Bilboko jendeak, zelako gustuak, ezagupideak eta jokarak zituen aldi hartako literaturari begira. "Generación del 27" deritzaion belaunaldiko idazleen ezagutu nahia eta kezka ei zuten batez ere. Nahiko ondo eta sakon ezagutzen omen zituzten heuron lanok. Olerki eta olerkarien mailan Juan Ramón Jiménezek arrakasta gehiago ei zuen heuron artean Unamuno, García Lorca, edo Machado batek baino. Pedro Salinasek berriz nahiko sarpide eta entzute ei zuen ikasle unibertsitarioen artean. Teatroari dagokionez, idazlerik estimatuenak hauexek ei ziren: García Lorca, Alejandro Casona, eta baita Jacinto Benavente eta Jardiel Poncela.

Lauaxeta bera ere, bere aldetik seguru asko egingo zituen bide urratzeetatik aparte baina ez alde, "ALEA" taldeak eta garai hartako Bilboko mugimendu honek eskeintzen dizkigun koordinatan jarri hehar dugu bere lanak aztertzerakoan, nahiz ta aldez aurretik jakin, hauek hakarrik etzirela izan bere jorrabideak. Euskal literatura idatzi zein herrikoiaren jorratzea ezin dugu ahaztu esate baterako. D. Pablo Bilbao Aristegik gogoan ditu oraindik Lauaxetaren gustu literarioei buruzko zehaztasun batzuk: Lehenengo eta behin, Paul Valery-ren lanak eta "Poesía pura" izenez ezagutzen den jokerea oso ondo ezagutzen zuela, hortaz behin baino sarriagotan luze mintzatu baitziren. Lehen esan ditugu talde honek, "ALEA"-k, zelako ezagupidea zuen "Generación del 27" zelakoari buruz, baina detaile bezela balio badu hona hemen anekdota bat berak kontatu bezela: Behin, Diputazio aurrean, Espasa Calpek egin zuen Antonio Machadoren Lan Bildumaren bigarren argitalpena besapean erosi berri zekarrela aukitu zuen Lauaxeta, hortan oso interesatua baitzegoen.

1.936. urten "LUISES" izeneko aldizkari hatek hiru ale argitaratu zituen. Izenak berak ere iragartzen digu zelako taldea zen eta nork eraginda, baina hori alde batera utzita, hauxe da beharbada interesgarriena: bihilabetekari hartan olerkari bi, Lauaxeta eta Blas de Otero, idazle izan ziren. Lauaxetak erdaraz idatzi zuen gai erlijiosoei buruz, eta baita ere poema bat euskaraz. Poema hori erderaz ere argitaratu zen. Itzulpena Lauaxetak berak egin zuen, baina erdal moldakuntza olerki legez, Blas de Oterok eman zion. Blas de Oterok berak ere, erlijio gai mistikoei buruz argitaratu zuen olerkirik, "Blas de Otero y Muñoz, C.M." firmaturik.

"ALEA" taldea gerrostean berriro bildu zen, eta 1942.tik aurrera "Cuadernos del Grupo ALEA" argitaratzen hasi zen. Lauaxeta etzen "aleaterren" artean, eta horregaitik, taldeko eta olerkari ere izan zela-ta, omenaldi bat egitea pentsatu zuten taldeko izandakoaren omenez, baina behar ziren kontsultak egin ondoren baztertu egin zuten ideia hori, etxegoen gerrondoko politika giroa hortarako-ta.

Lauaxeta, ameslari bat ei zen hizkera eta zinueta ere, idealista bat, traturako fina, kulta, lotsakorra idazterakoan, tipo desenfadatuaren guttiz kontrako pertsona. Inork etzuen pentsatuko izakera horrekin gudarien komandantea izan zitekeanik. Horrelakoa ei zen Lauaxeta.

# Langile eraildu bati

**Jon Kortazar / Etxezarraga**

"Langile eraildu bati"  
Lauaxeta

Lan hau helburu biko da. Lehenagoz, Lauaxeta-ren eta Lorcaren arteko influentzi poetikoak zehaztu nahi gintuzke, eta bestetik L. olerkigintzan ari zeneko Bilboko egoera literarioa eta garai hartako idazle arteko hartu emanak deskribitu.

Lauaxeta-ren influentziei buruz ba dira zenbait saio euskal kritikaren munduan. Batez ere, M. Zarateri zor diogu Lauaxeta-ren iturrien ezagutzea. Idazle honek era bitako influentziak markatzen ditu bere "Euskal Literatura"n (1): Espainako Neoklasizismoa eta herri poesia.

Gure saio honetan hirugarren influentzi bat probatu nahi dugu: García Lorca-rena, hain zuzen (2). Baina ez gara geldituko berdintasunen zerrenda bat eginez bakarrik. Beste ale batetik Lauaxeta-ren influentzi osteko orijinalitatea azpimarratu nahi genuke.

## **1. Lorca eta Lauaxeta:** Influenzia eta orijinalitatea.

1.1. Lauaxetaren poema hau irakurri genuenean Lorcaren "Romancero gitano"ren oihartzun batzuk susmatu genituen. Beraz, oihartzunok era bitan konkretatu ziren: oihartzun orokor baten antzera: gai aldetik-edo berdin egiten zitzaigun zerbait, eta azkenez ia hitzez hitz aldaturik zeuden bertso eta esaldiak.

Lehenago oihartzun orokor horrekin hasiko gara. Hasteko, eta lehenago datu moduan poema honen iturri konkretuak eman behar ditugu. Lauaxeta-ren poema Lorca-ren hirutan oinarritzen da: "Prendimiento de Antoñito el Camborio", "Muerte de Antoñito el Camborio" eta "Romance de la Guardia Civil".

1.1.1. Poemaren narratibotasunak eman zigun pista: *Langile* poema horretan Lorcak hirutan emandako desarroilo dialektikoa ematen da. Bigarrenez, "miatzaria"-ren irudia inkonkretasunez agertu arren ere, "aurpegi balzdun" datu horrek pertsonaia emigrantea dela susmatzeko bide ematen ditu, (andaluza, zergatik ez?). Hortik jaio zen susmoa baina, susmoa proba bihurtu zen.

1.1.2. Ba dira bietan ere estribili baten erabilketa "Voces de muerte sonaron" Lorcaren kasuan eta "Ene Bizkaiko miatze gorri". Baina askoz ere sintomatikoa iruditzen zaigu erreka agertzea poemetan (cerca del Guadalquivir / Nerbioi ertzok).

1.1.3. Kasu konkretu batzutan bardintasunak kalko bihurtzen dira:

- 1) '*lo llevó codo con codo*'
- 2) '*La tarde colgada al hombro*'
- 3) '*viene... / entre los cinco tricornios*'
- 4) '*los guardias civiles / beben limonada todos*'
- 5) '*bañó con sangre enemiga*'
- 6) '*sobre las capas relucen*'

- 1) '*Noruntz aroe esku lotuta*'
- 2) '*Lepo-ganian... / goxa sorbaldan*'
- 3) '*Mendiz bera lau txapel okerrez*'
- 4) '*Txapel okerrak edango yabek ardao onena...*'
- 5) '*etsai odolez / bustiko eunkek*'

1.1.4. Teknika aldetik ere, ba dago oso garrantzizkoa uste dugun elementu bat. Lauaxetaren poemak estruktura bat du. Lorcarenak hartzen duten estruktura berbera; baina dramatikotasuna batez ere elkarrizketan agertzen da. Elkarrizketak teknika berezi bat du Lorcaren "Prendimiento"-n: pertsonajeak idazlea deitzen du, bere presentzia eskatuz akzioan.

Lauaxeta-ren kasuan ez da elkarrizketa hain nabarmen agertzen. Baina dramatikotasunaren karakteristika den "zu" hi izenordea idazle — eta pertsonajearen arteko elkarrizketa baten markatzen da. "*Noruntz aroe esku-lotuta*".

1.2. Baina idazle bien arteko ezberdintasunak nabariak dira. Jakina da Lorcak bere lanetan marjinatuen alde agertzen dela, hortik datorkio ijito (*Romancero gitano*) eta beltzakaitik ("*Poeta en Nueva York*") duen minbera. Lauaxetaren poeman ere marjinatu batzuk agertzen dira. Baina ijito eta beltzak (lar eta hiri munduko marjinatuak) ez dira inoiz klase borroka baten sartzen. Ikuspegi honetatik, bada, Lauaxeta poesia sozial baten aurrelari dugu. Desberdintasun hau, "asmo" maila baten jarri dugu.

Baina desberdintasun hori nabariagoa da Lauaxetaren poema bere iturri diren "Romancero"-koakaz konparatzen ba dugu. Hemen, giroa ere desberdindu delako. Lar edo nekazari giro batetik hiri giro batetan jarri duelako akzioa.

Beste aldetik, borrokaren burutzea ere ezberdina da. Ijitoen borroka sendi borroka bat da, giro rural baten ematen diren antzekoa. Baina *Langile* poemaren borroka klasekoa da; Lorcaren lanetan agertzen ez den elementu berri bat agertuaraziz: nagusia: "jaubiak".

XX mendeko hasieran gizarte arazoaz arduratu zen Euskal Literatura. Txomin Agirrek agertu zuen lehengoz ardura eta gai soziala. Baina bere ikuspegia zeharo ezberdina zen, geroago literatura sozialak hartu zuen joeratik.

Txomin Agirre ez da inoiz langile industrialaren alde, beharbada partidu mailan aldi haretan PNV-PSOEek zituzten diferentzietan parte ideologikoa hartu zuelako. Lauaxetak beste posizio bat du, bere poeman hiriko langilea da protagonista, eta ikuspegi honetatik euskal poesia sozialen lehen pausu bat da.

Guardien ikuspegia ere ezberdina da zeharo: Lauaxetak kapitalaren zerbitzari legez jartzen ditu:

*"Ari bitartez deyak yabiltzak  
iBideskan zelan dirdin-yagiyek  
txapel-okeren kapela baltzak!*

Agertzen ba dira, jaubearen deia betetzeko agertzen dira, greben prolematikakin batera.

## **2. Poemaren balio literarioak.**

Bigarren alde honetan Lauaxetaren olerkigintzaren karakteristika orokor eta nagusi batzuk jarri nahi ditugu.

Karakteristika jeneral horrek poema honen azterketatik, baina guk uste, jeneralitasun horretan Lauaxetaren beste lan batzuetarako ere balio dute. (3)

2.1. Lehengoz azpimarratuko nuke bertsoen neurria da: 10 x 10 A / 10 x / 10 A. Honelako estrofa ez dira Euskal Herriko olerki herrikoietan erabili. Bigarrenaz bertso guztiak bere etena dute: 5/5, eta hauxe bai herriak erabiltzen duela. Konkretutik jeneralera pasatuz bada: kanpotik ekarritako estrofa erak erabili, baina herriaren teknikaz nahasturik.

2.2. Bertsoaren kopuruen zenbaki berdina: 5 estrofa lehengo aldean eta beste 5 bigarrenean. Numero ekilibrioak lortzeran oso zaleturik agertzen zaigu Lauaxeta. Zenbakietan beti logikoa.

3. Poema arkitektoniko idazten ditualaren inpresioa sendotzeko oso argi ikusten da estribilioaren lekua poemaren hasieran-erdian-amaieran. Hor ere simetriaren jokoa jarraitzeko.

4. Lauaxeta-ren estiloaren klaberik garrantzitsuena, hala ere, beste hau iruditzen zaigu: estilizatorantza duen joera. Estilizazioa: kasu guztietan berdin egiten du: deskripzio bat eman behar ba du, beti hiru-lauren elementu bitartez eman: Poema honetan ba ditugu adibidiak meatzariaren deskripzioa (ule, arpegi, begi), greba ("*Ukabil sendo, soñanzki urdin*") meak ("*zauri, tranbi dardar*") olak ("*kezko zeruba*") nagusiak ("*nasai etzunda*"). Pintselada batekin nahiko du zerbait deskribitzeko.

Estilizazioaren ejemplurik hoberena hauxe dugu: Lorca-ren hiru poematan esan duena, Lauaxetak baten jarri du.

